





HIZKUNTZA
EZ
SEXISTAREN
GIDALIBURUA
BERDINTASUN ARLOA



AURKIBIDEA

- 1.** Sarrera
- 2.** Hizkuntzaren garrantzia
- 3.** Hizkuntzaren erabilera ez zuzena (androzentrismoa eta sexismoa)
 - 3.1** Hizkuntzaren erabilera ez zuzenaren arrazoiak
- 4.** Akats ohikoenak
- 5.** Hizkuntzaren aldaketa eta erabilera egokia
- 6.** Bibliografia



1. Sarrera

Berdintasunak, administrazioen zeharkako ardatza denez, zenbait parametro eskaintzen ditu aukera-berdintasunerako politiken eta ekintzen gidari, legeetan xedatutakoaren arabera. Kasu honetan, toki-administrazioa izateagatik, zeharkakotasun-ikuspegia udalaren sail guztietara hedatu beharra dago. Hori dela eta, udal-administrazioan bertan **hizkuntza inklusibo**a proposatzen duen tresna sortu nahi du Urduñako Berdintasun Arloak.

Gidaliburuaren helburua izango da administrazioiko **politikari eta teknikariek gizon eta emakumeei protagonismo bera** ematen dien hizkuntza erabiltzeko baliabidea edukitzea eta emakumeenganako inolako bereizkeriarik ez egotea.


Gidaliburuak berak hizkuntzaren garrantzia, bere eragina eta hizkuntzaren erabilera ez sexista identifikatzeko moduko kapituluak ditu osagai.

2. Hizkuntzaren garrantzia

Hizkuntzak pentsatzen eta sentitzen duguna zeinu-multzoen bidez komunikatzeko aukera ematen digu. Gizakion berezko tresna da, eta gizarateak berak ezarri eta aldatu egiten du. Hortaz, errealitatearen inguruan dugun pertzepzioan ere badu eraginik. Hots, komunikatzeko aukera eskaintzen digu, baita **hizkuntzaren bidez zenbait jakintza, balio, estereotipo, ideologia... igortzeko abagunea** ere.

Hizkuntzaren bidez, ikusi, aukeratu eta etiketatu egiten dugu, harik eta pertsona bakoitzaren esperientzien arabera aldatzen diren sinboloak eta esanahiak sortu arte. Harreman guztiak hizkuntzaren bitartez ezartzen ditugunez, esperientzia horiek sustatzen ditu edo koherentzia ematen die, bere horretan uzteko edo eraldatzeko.

Gizarteratzeko prozesuan, belaunaldiz belaunaldi igortzen diren zenbait inplikazio ditu hizkuntzak. Horixe bera da **hizkuntzaren eredu sexistaren kasua, bertan mutilak eta gizonak direlako protagonistak**. Horren ondorioz, beharrezkoa da pertsonengan eragina daukan elementuari garrantzi handiagoa ematea, egunero gaudelako haren eraginpean.



3. Hizkuntzaren erabilera ez zuzena

3.1 Hizkuntzaren erabilera ez zuzenaren arrazoiak

Jarduera guztiek eta egunero gure bizitzan egiten dugunak eragina du zenbait eragile sozialetan; esate baterako, sexua, etnia, erlijioa... Giddensen esanetan (Rebollo, 2010, aipamena), beste batzuekin elkar-reraginean egotea da gizarteratzea, eta, horren arabera, balioak, jar-rerak, aurreikuspenak eta ekintzak ikasi eta barneratu egiten dira. Hau da, prozesu horretan, sistema patriarkalak gudan daukan eragin guztia gauzatu eta partekatzen dugu geure hurkoekin. Gizarteratzeko pro-zesua baldintzatzen duten eragile horien ondorioz, **androzentrismoa** sortzen da, eta, sexuaren arabera, gizonak nagusi eta erreferente dira arlo guztietan.

Androzentrismoak beste fenomeno diskriminatzaile bat ere sorrazten du, **sexismoa**, alegia. Ideologia horrek, gainera, balio eta zeregin des-berdinak esleitzen dizkie gizon eta emakumeei haien sexuagatik. Hori dela eta, emakumeek euren balioa galtzen dute, eta desabantailan dau-de gizonen aldean. Desberdintasun hori arlo guztietan gertatzen da; eta, haietako batean, hizkuntzaren bidez.

Hizkuntzaz egiten dugun erabilera sexista bizileku dugun gizartearen menpe dago, kultura androzentrikoa da-eta. Gizarteak, hain zuzen ere, gizoni eta haiek egiten dutenei baino ez die protagonismoa ematen. Desberdintasun hori gizakion jarduketa-eremu guztietan igortzen da, eta hizkuntza bera egoera horren erakusgarri da, besteak beste.



4. Akats ohikoenak

Emakumeak era batera edo bestera **ezkutatzea edo desagerraztea**.

Akatsa da talde mistoaz hitz egitean gizonzkoen genero gramatikala erabiltzea, emakumeen lanari edo partaidetzari protagonismoa kentzen zaiolako.

Gizonak ekintzaren ardatz eta erreferentzia bakarra direla eta **emakumeak menpekoak eta agindupekoak** direla adieraztea.

Hurrengo adibideetan, argi eta garbi ikusten da nesken eta emakumeen inolako aipamenik egiten ez dela, eta gizonen jabetza moduan baino ez dituztela aitutzen. Badirudi horrelako baieztapenak arruntak direla, baina eragin handia dute gizarte moduan dauzkagun harremanetan.

Nolako sexua halako tratamendua. Emakumeak gutxiesten dira. Sexismoa zabaldu egiten da, eta estatus desberdina ematen die gizon eta emakumeei. Gizonei beti era jakin batean deitzen zaie. Emakumeak, ordea, haien egoera zibilaren arabera tratatzen dituzte.

Ezaugarriak desberdinak dira gizonentzat (adimenarekin lotutakoak) eta emakumeentzat (estetikarekin lotutakoak)

Horrelako adibideak behin eta berriro agertzen dira erakunde guztietan, baina ezin da adjektibo sexistarik erabili gizon eta emakumeentzat.

Emakumea aipatzea deskalifikatzeko eta emakumei buruzko edo haien balio, portaera eta jarrerai buruzko aipamen iraingarriak egiteko

Emakumeak kanpoan geratzen dira

-Mutilek udalak egindako tailerlean parte hartu ahal izango dute (**neskak alde batera geratzen dira, aipatzen ez dituztelako**).

-Erregeak Guggenheim museoaren inaugurazioan egon ziren. (**Ekialdeko Errege magoak ote?**).

Emakumeak ikusezin bihurtzen dira

-Bileran, zerbitzuko legegizon guztiak egon ziren (**bileran zerbitzuko lege-andreak egonda ere**).

-Zerbitzuburu jauna: gutun honen bidez... (zerbitzuburuaren izena... Isabel!).

-X. jauna erakusketara joan zen emaztearekin eta semearekin.

-Zubizabal jaunaren emazteak moda-desfilea ikusi zuen.

-A. jauna larriki zaurituta geratu zen, aurrez zetorkion kamioiaren kontrako istripuaren ondorioz. A. jauna emaztearekin zihoan eta, gezurra badirudi ere, zauri arin eta kolpetxo batzuk baino ez zituen izan.

-Arratsalde on, jauna, atsegin handia da zu ezagutzea.

-Kaixo, andrea! Lopez jaunaren emaztea zara?

-Laster ezkonduko zarenez, aurrerantzean ez zara neskatoa izango, Arguetairen emaztea baizik.

-Kongresistek arreta handiz ikusi zituzten instalazio berriak zuzendariaren laguntzaz...” (erakutsitako arreta eta laguntzailearen kargua azpimarratzen dira).

-Legegizonak astean behin elkartuko dira enpresan.

-Jendetza handia egon zen inaugurazioan. Emakumeak, dotore jantzita (gizonak edo emakumeak izan, honako edo halako ezaugarriak aitortzen zaizkie, eta, emakumeen kasuan, estetikarekin dute zerikusia).

-Beti berriketan, emakumeak bezala.

-Txakurrari hezurra eta emakumeari gezurra.

5. Hizkuntzaren aldaketa eta erabilera egokia

Hitz egiteko eta komunikatzeko modua norberaren, gizartearen eta kulturaren adierazgarri denez, aldatu egin beharra dago gizonen eta emakumeen artean duelako eragina. Horretarako, zenbait **proposamen** aurkezten dira, hizkuntza sexista ekiditeko eta erabilera egokiagoa eta paritarioa egiteko.

Lehen esan dugun moduan, zorionez, euskaraz generorik ez dugula eta, ez dugu auzo-hizkuntzek beste arazorik erabilera androzentristaren auzian. Hala ere, komenigarria da hainbat ohitura saihestea, gizonen eta emakumeen agerpen-maila berbera izan dezaten.

Gizon/Gizakia/Giza

Gizon, gizaseme eta gizonezko hitzak gizonentzat bakarrik erabili; eta, gizaki, aldiz, gizonak zein emakumeak izendatzeko edo generiko gisa. Giza errotik sortutakoek (gizarte, giza talde...) ez dute gizon hitzak duen konnotaziorik; bietarako erabil daitezke, beraz. Hitz elkartuetako bigarren osagaia gizon denean (legegizona, itsasgizona...), -ari atzizkiaz erabili dezakegu lanbidea adierazteko (legelaria). Beste kasuren batean, langile ere izan daiteke bide egokia (itsaslangilea).

Hitz-elkarketa

Emakumeren bat tartean badago, euskarak berezkoa duen joerari etsi behar diogu: aita-amak, senar-emazteak, seme-alabak...

Jaunen nagusitasuna

Batzuetan, gure mezua nori helarazi nahi diogun oso ondo jakin ez, eta ohituraren ohituraz edo gaztelaniaren eraginez edota androzentrista bultzatuta, jauna hitza aukeratzen dugu. Hori horrela, idazki askoren goiburuan zuzendari, sailburu, alkate... jauna formula erabiltzen dugu, kargu horiek maiz emakumeek betetzen dituzten arren. Gogoan izan euskaraz jaun-andre bokatiboa badugula.

-sa atzizkia

Atzizki hori daramaten hitz gehienak berriak dira eta asko eta asko maileguak (artxidukesa, abadesa...). Atzizki hori zubereraz dago bizirik (artzain-tsa, laborarisa, jainkosa, alarguntsa...). Mendebaldean, kargu jakin bat duenaren andrea aipatzeko erabili izan da (alkatesa).

Euskara baturako mugatu egin beharko litzateke atzizki horren era-

5. Hizkuntzaren aldaketa eta erabilera egokia

bilera. Zenbaitetan, izen propioak berak emango digu sexuaren berri (Alicia Alonso dantzaria). Beste batzuetan, testuinguruak argibiderik ematen ez digulako-edo, mugatu beharrean izango gara, eta, horretarako, izen arruntetara jo (emakume alarguna, neska dantzaria...).

Hitanoa

Erabiltzekotan, gogoan izan behar dugu hitanoak sexua markatzen duela eta, beraz, kontu handiz erabili behar dugula inor ez baztertzeko. Hortaz, ez inoiz erabili talde bati zuzendutako mezuan, baldin eta talde horretan gizonak bakarrik ala emakumeak bakarrik dauden seguru ez badakigu.

Kontuz beste muturrera pasatzeagatik

Erdarazko testuak euskaratzerakoan arazo bat edo beste izan dezakegu, hizkera sexista saihesteko perifrasi bat topatzen dugunean. Kontua da, lantzean behin, perifrasi horiek beharrik gabe gordetzen ditugula jatorrizko testuari atxikiegi jokatzen dugulako.

Esaterako:

Triptikoa populazio erretzailearentzat eginda dago.

Testu honetan oso gauza bitxia ikusi dezakegu: jatorrizko testua gaztelaniakoa zen, eta, bertan, hizkera sexista saihesteko perifrasi bat egin zuten (los fumadores / la población fumadora). Testua euskaratzean perifrasi gorde egin da, euskaraz horrelakoen beharrik ez dugula ahaztuta: Triptikoa erretzaileentzat eginda dago.

Pertsonari dagozkion balioak, trebetasunak, eta gaitasunak aipatzea, pertsona hori sexu batekoa zein bestekoa izan.



Adibidez, zientzialarien bilera batean gizon baten profesionaltasuna aipatzen bada, ezaugarri horixe bera aipatuko da emakume baten kasuan, eta ez bere edertasuna edo jatortasuna, askotan egiten denez.

Ingeniariak pertsona sendoa izan behar du, berriz arkitektoa imajinatzen dut gozo eta sentibera dela / Ingeniaria eta arkitektoa pertsona oso burutsu eta sortzaileak dira.

Gizon eta emakumeei tratamendu berbera ematea

Adibidez: jauna, andrea eta euren izen edota abizenak (berdin kasu bietan).

López jaunak eta andreak osasun-proiektu berria positibo bezala ebaluatu zuten.



6. Bibliografia

Salamancako Udala. “Guía para un uso inclusivo del lenguaje en la administración local”. 2010

Quart de Pobleteko Udala. “Porque las palabras no se las lleva el viento...”. Teresa Meana Suárez.

Hizkuntza, hitzak baino zeozer gehiago. Hizkuntzaren erabileraz ez-sexistarako proposamenak. EGILEA: Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundea. Vitoria-Gasteiz, 1988.

